

BILBOKO INGENIARITZA ESKOLAREN INGURUMEN KONPROMISOA (BIE/EIB)

Bilboko Ingeniaritza Eskola (BIE/EIB) erreferentziazko erakunde akademikoa da ingeniartzaren arloan. Enpresa-ingurunearekin lotura estua eta etengabea izatea du ezaugarri, eskainitako irakaskuntza eta ikerketa lan-merkatuaren eskaerekin eta eskakizunekin eta gizartearen beharrian berriekin bat datozela bermatzeko.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak azken urteotan izan duen bilakaera ona agerian geratzen da ikasleek, irakasleek, langileek, interes-taldeek eta gizarte osoak adierazitako gogobetetze-maila altuetan. Etorkizunean asebetetze-maila horri eusteko eta indartzeko, Eskolak onartzen du beharrezkoa dela aurrerapen akademikoa eta zientifikoa, garapena eta ingurumenaren babesa bateragarri egitea. Ildo horretan, eta prestakuntza- eta ikerketa-eginkizunarekin bat etorritik, erakundeak kutsadura ekiditeko eta erakundearen eguneroko kudeaketan ingurumen-irizpideak txertatzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, bere ingurumen-jarduna etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen du, ingurumenarekiko sentikortasuna sustatuz eta balio eta jokabide arduratsuak eta errespetuzkoak inspiratuz Zentroan garatzen diren jarduerak guztietan.

Ondorioz, Bilboko Ingeniaritza Eskolak bere jardueratik eratorritako ingurumen-alderdi nagusiak sistematikoki identifikatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzen du, baliabideen erabilera arduratsua, efizientzia energetikoa, sortutako hondar-korronteen kudeaketa arduratsua eta Eskolako komunitate osoan jokabide jasangarriak sustatzera bideratutako neurriak txertatuz. Horrela, eguneroko praktikek modu koherentean islatu nahi dute Eskolak ingurumen-inpaktua minimizatzeko duen konpromisoa.

Etengabeko ingurumen-hobekuntza, indarrean dagoen araudia betetzetik haratago doan erronka gisa ulertuta, Eskolaren konpromiso nagusietako bat da. Helburu horrekin, urtero ezartzen, berrikusten eta eguneratzen dira kudeaketa bideratzen duten helburuak, jomugak, ekintzak eta ingurumen-adierazleak.

Bilbon, 2025eko irailaren 11a

Sin.: *Charles Pinto Cámara*
Eskolako zuzendaria